

## CUIDADOS

# URKABUSTAIZEK GIZARTE ZERBITZU GEHIAGO ESKATU DITU UDALERRIAN

**45 ADINEKO BAINO GEHIAGO ELKARTU DIRA URKABUSTAIZEN, GIZARTE ZERBITZUEN GABEZIA ETA OSASUN ARLOKO MURRIZKETAK AZTERTZEKO.**



Joan den martxoaren 13an, asteazkena, 65 urtetik gorako 45 pertsona inguruk KUKUSO herri plataformak osasunaren eta zaintza publikoen alde egindako deialdian parte hartu zuten, Urkabustaizko adinekoentzako zerbitzu publikoen erabateko gabeziaren aurrean alternatibak eztabaidatzeko. Bertaratze hain jendetsuaren aurrean, Urkabustaizko Kultur Etxeko ekitaldi aretoa prestatu behar izan zen, etorri zen jende kopurua aurreikusitakoa baino askoz handiagoa izan zelako.

Bileran horretan, udalerraren egoera aztertu zen adinekoentzako zerbitzuei dagokienez, eta egoera hori larriagotu egin zen 2023an Zabalbide egoitza itxi zenean. Gaur egun ez dago egoitzetarako plaza publikorik Gorbeialdeko koadrilan, eta Urkabustaizen ez dago ez eguneko zentrorik, ez jantokirik, ez egoitzarik, ez etxebizitza komunitariorik.

Bertaratutakoak haserre agertu ziren landa eremuak Gasteizetik eta beste udal handiago batzuekiko alderatuta argi eta garbi diskriminatuta daudelako. Etorkizuneko bileretan, alternatibak aztertuko dira, Udala egiten ari den ikerketaren datuak ere kontuan hartuta. Ikerketa hori, hain zuzen ere, herrietan adineko pertsonak dituzten bakardade eta isolamendu egoerei buruzkoa da.

## Aldundiarekin bilera

Otsailean Urkabustaizko Udalak bilera izan zuen Aldundiko Gizarte Ongizate Sailarekin, Gorka Urtaran foru diputatua eta Ana Belen Otero Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarekin, hain zuzen ere, eta Kukuso Taldeko bi kide ere parte hartu zuten, egoeraren berri emateko. Bileran ez zen Arabako Foru Aldundiaren konpromisorik lortu epe laburrean, baina udalerrak kolektibo horren egoera hobetzeko eskaera zehatzak helarazteko konpromisoa hartu zuen.

## Sinadura bilketa

Era berean, bileran herritarren osasun egoerak okerrera egin duela salatu zen, Osakidetza ez baitu mediku titularraren baja estali. Inguruko medikuak kontsultara txandaka joaten dira, ordu batzuetan; eta, horren ondorioz, astero mediku desberdin bat egoten da. Gainera, horren bitartean bere jatorriko anbulatorioak ez du mediku zerbitzurik izaten. Horrela, landa eremuko anbulatorioen arretarik eza biderkatu egiten da.

Hori guztia horrela izanda, bileran, udalerrian sinadurak biltzen hastea erabaki zen, mediku titularraren baja berehala bete dadin eskatzeko. Ezin dira plaza berak bete pertsona gutxiagorekin!

## ZERBITZU PUBLIKOA

# UDALAK ANBULATORIOKO ESPAZIOAK HANDITU ETA KOMUNAK ERABERRITUKO DITU

**OSAKIDETZARI DIRULAGUNTZA ESKATU DIO HORIEI EKITEKO.**

laz egin zuen bezala, Udalak hobekuntza lanak egin nahi ditu anbulatorioan. 2023an, instalazioak margotu, altzariak berritu eta leiho berriak ireki ziren, eremu komunitario aireztapena errazteko. Obra horiek, hein handi batean, Osakidetza finantzatu zituen.

Oraingo honetan, Udalak medikuaren eta erizainaren espazioa handitzea aurreikusten du, baita komunak egokitzea ere, irisgarriak izan daitezkeen.

Horrela, erreforma-planaren berri eman dio Osakidetzari, eta dirulaguntza eskatu du, erantzunaren zain.

Hobekuntza obren aurrekontua 35.050 eurokoa da.

## LABURRA

# OHZ ZERGA ZATIKA ORDAINTEKO AUKERA

Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (gaztelaniaz IBI deritzona) zatika ordaintzeko aukera gaitu du, bi epetan. Horretarako, herritarrek apirilaren 30a baino lehen eskatu behar dute aukera hori udaletxean.

OHZ eta zaborrak biltzeko epea borondatezko epean izango da, uztailearen 1etik abuztuaren 31ra.

# PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARRIKO DIRA UDAL ERAIKINEN AUTOKONTSUMORAKO

**60 PANEL FOTOVOLTAIKO JARRIKO DIRA LANDABERDEKO UDAL BILTEGIAREN ESTALKIAN, HAMAR UDAL-ERAIKIN ENERGIATZ HORNITZEKO.**

Proiektu hau Udalak energia berriztagarriak sustatzeko duen estrategiaren barruan kokatzen da; izan ere, udal erakundearen ustez, iturri berriztagarriak tresna egokiak dira klima-aldaketaren erronkei erantzuteko.

Aldez aurretik, Udalak sare elektrikoaren konexioa erraztu zuen, eta Landaberdeko industrialdeko udal biltegiari krokadura eta hartune elektriko eman zizkion. Izan ere, instalazio elektriko propioa jarri da biltegian.

## 60 panel Landaberden

Hurrengo hilabeteetan, 455wp-ko 60 panel fotovoltaiko jarriko dira estalkian, 27 "3 Kwp inguruko potentzia nominalarekin.

Udal-biltegia aukeratu zen, instalazioaren banaketa koefizienteak ahalik eta modu eraginkorrean kalkulatu ondoren; izan ere, energia sortzeko puntutik (udal-biltegia) aurreikusitako udal zerbitzu publiko guztiak hornitu daitezke.

## 10 udal-eraikin hornituko dituzte

Autokontsumo partekatuko proiektu honetan sartuko diren udal eraikin eta azpiegiturarako eta erabilera publikoko eraikinetako energia elektrikoaren hornidura puntuak honako hauek izango dira: Herri Eskola kirol-

degia, erretiratuen gunea soziala, Ikastola 1, Ikastola 2, eskolaurrea, kontsultategia, kultur etxea, igerilekuak, frontoia eta frontoi taberna.

## Erein programaren dirulaguntza

Plaka fotovoltaikoak instalatzeko eta energia banatzeko kostu osoa 50.960 eurokoa da. Udalak 22.000 euroko dirulaguntza jaso du, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren 2023ko ekitaldiko Erein programatik. Programa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak jasotzen ditu.

Obra guztiak 2024ko abendurako amaituta egotea aurreikusi da.

## Aurrezpen ekonomikoa eta emisioen murrizketa

Era berean, Udalak jakitera eman du instalazio horrek 5.757 euroko aurrezpen ekonomikoa ekarriko diela urtean udal kutxei, hau da, %50eko aurrezpena. Eta emisioei dagokienez, 9.336 kg Co2 saihestuko direla kalkulatu da.

# 55 URTETIK GORAKO PERTSONENTZAKO DIGITALIZAZIO TAILERRA

**APIRILAREN 11N ETA 25EAN, 17:30ETIK 20:30ERA, UDALETXEAN.**



Hainbat erakundek, Gelak +55 programaren barruan eta Digitaliza ekimenaren bitartez, digitalizazio tailerra antolatu dute apirilaren 11 eta 25erako kultur etxean.

## Mailaren arabeko taldeak

Digitalizazio tailerrak telefono mugikorren, whatsapparen, posta elektronikoaren eta sare sozialen erabilerekin ikaskuntza eta praktika izango ditu ardatz. Parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira: bata hastapeneko eta bestea oinarrizko mailakoa.

Informazio gehiago udaletxean edo 945 437080 telefonora deituz.

## Herriz herriko garraioa

Aulas +55 programaren barruan antolatzen diren jarduerak guztiak taxi zerbitzuaren bidez bermatzen dute herriz herriko garraioa. 17:00etatik 17:25era igaroko da horietatik, eta gutxi gorabehera 20:00etan irtengo da Izarratik. Erabili ahal izateko, ezinbestekoa da gutxienez egun bat lehenago abisatzea. Aitor Zubiaur: 627 411127.





# IGERILEKUEN INGURUETAN ZULO BAT SORTU DA

**BERRIZ ERE ZULO BAT SORTU DA IGERILEKUETATIK GERTU DAGOEN PASEALEKUAN, LURRAREN EZAUGARRI GEOTEKNIKO EZEGONKORRAK DIRELA-ETA.**



2020ko maiatzean gertatu zen bezala, tamaina handiko zulo bat sortu da berriro Ostuñoko igerilekuen ondoko pasealekuan, haur parkea Izarrarako noranzkoan igarota.

## Lau urteren ondoren

Duela lau urte egin zen bezala, eremua behar bezala hesitu eta seinaleztatu da istripuak saihesteko. Eta Udala martxoaren 18an agertu zen zuloak hazteari noiz utziko dion zain dago.

Oraingo honetan ez du Udala ezustean hartu, izan ere, 2020ko maiatzean egiaztatu zuten, azterketa geotekniko baten bidez, gertaera hori inguruko luraren ezaugarriek sortu zutela. Izan ere, egindako ikerketaren arabera, eremu horretako luraren berezko buztinetan zeuden igeltsuen (edo beste gatz disolbagarrien) disoluzioak eragin zuten lurra hondoratzea.

## Ezegonkortasun arrisku handia

Txosten horrek zehaztu zuen igeltsuak eta halitak oso sentikorrek direla maila frea-

tikoaren aldaketekiko, eta horiek deseginez doazela, denborarekin gainazalari eragin diezaioketen hutsuneak sortuz. Gainera, disoluzio azkarra dutenez, zuloak ezegonkortasun seinalerik eman gabe ager daitezke. Horregatik guztiagatik, azterlanaren xede den zonak, Izarra ibaitik gertu egoteak larriagotuta, ezegonkortasun arrisku handia duela ondorioztatu dute.

## Sei kamioi lurrez beteta

Orduko hartan, Udalak, zuloak hazteari utzi ondoren, konpondu egin zituen hondoratzeak eragindako eroanbide elektrikoak eta gasezkoak, eta, ondoren, zuloa sei kamioiren lurrez bete zuen. Eta ingurua finkatuta zegoela, asfaltatu egin zuten.

## Eboluzioaren zain

Udala, beraz, inguruko lurzorua xehetasunen jakitun, zuloak, behar bezala seinaleztatuta eta hesituta, hazteari utzi arte zain dago. Ondoren, gas eta elektrizitate eroanbideak berregokituko ditu, eta lurrez beteko ditu berriro.

# GAZTEENTZAKO ANTZERKIA ETA IKUSLE GUZTIENTZAKO FILMA

**UDALAK 'SÓLO HASTA MAÑANA' ANTZEZLANA ETA 'CAMPEONEX' FILMA PROGRAMATU DITU APIRILEKO LEHEN ASTEETARAKO, BAITA "GELAK +55" PROGRAMAKO JARDUERAK ERE.**

Behin Aste Santuko eta Pazko Asteko egunak igarota, Udalak gazteei, familiei eta adinekoei zuzendutako hainbat kultur jarduerarekin ekingo dio apirilari.

## Gelak +55

Gelak +55 programako jardueraz gain (digitalizazio tailerra eta adinekoen tokiko kolektiboaren bilera barne), bi kultura jarduera ere antolatuta dira.

## Harremanak tonu komikoan

Apirilaren 13an, larunbata, Erre Produkzioak konpainiaren 'Sólo hasta mañana' antzezlana eskainiko da. David Caiñak idatzia, Gorka Minguezek zuzendua eta Lorea Intxausti, Nerea Elizalde, Albar Cirarda eta Mikele Arizkorretak antzeztua, kultur etxean eskainiko da 19:00etan.

14 urtetik gorakoentzat da, eta sarreak 5 eurotan daude salgai.

Harreman irekiei eta sexualitatea ulertzeko modu berriei buruzko obra da. Ikuspegi komiko batetik, baina sakontasunez eta emozioen ikuspuntua bistatik galdu gabe, lanak gogoeta egin nahi du harremanak ulertzeko moduan izandako aldaketei buruz eta gazteengan duten eraginari buruz.

## Publiko guztientzat

Gainera, apirilaren 14an, igandea, Javier Fresser zuzendariaren azken filma proiektatuko da, 'Campeones' arrakastatsuen jarraipena dena. Kultur etxean ikusi ahal izango da, 18:00etan, eta sarrera doakoa izango da. Publiko guztiei zuzenduta dago.



## Virginia Imaz Quijera

Donostia

Virginia Donostiako Egia auzoan hazi zen. Magisteritza eta filologia hispanikoa ikasi zituen. Irakaslea izan zen herriko eskoletan eta ikasgeletan.

Oihulari Klown antzerki konpainia sortu zuen 1979an eta pailazo profesionala da 1988tik. Maskara-antzerkian sakondu du eta komikotasuna bilatzeko tailerrak eman ditu 12.000 ordu baino gehiagoz. Maskara-antzerkiaren esparruko 38 ikuskizun zuzendu eta lagundu ditu, 15 antzerki-konpainientzat.

1998ko ekainetik 2000ko abendura arte Cirque du Soleil en La Nouba ikuskizunean pertsonaia komiko gisa parte hartu zuen Kanadan eta Estatu Batuetan.

Gaur egun, Virginiak clown, antzerki eta ipuin-kontalarien prestakuntza ematen du, eta bere clownklusioengatik da ezaguna. Clownklusioak marka propio gisa erregistratu zituen, eta umorearen bidezko berreziketa emozional modura deskribatzen ditu, biltzarrak, mintegiak edo enpresa-bilerak amaitzeko. 2016an Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren epaimahaikide izan zen, eta 2017an sari hori jaso zuen bere ibilbide eta kontzientzia feministagatik eta "kontzientzia feministadun pailazo profesional eta ipuin kontalari gisa egindako ibilbide bikain, ausart eta luzeagatik".

Virginia se crio en el barrio de Egia, en Donostia. Estudió magisterio y filología hispánica. Ejerció como maestra en escuelas de pueblo y en aulas.

Creó su propia compañía de teatro Oihulari Klown en 1979 y es payasa profesional desde 1988. Ha profundizado en el teatro de máscara y ha impartido talleres a la búsqueda de la propia comicidad durante más de 12.000 horas. Ha dirigido y asesorado en teatro de máscara 38 espectáculos a 15 compañías de teatro.

Desde junio de 1998 hasta diciembre de 2000 participó como personaje cómico en el espectáculo La Nouba del Cirque du Soleil en Canadá y Estados Unidos.

Actualmente Virginia imparte formación de clown, teatro, cuentacuentos y es conocida por sus clownclusiones, que registró como marca propia, y que denomina reeducación emocional a través del humor para finalizar congresos, seminarios o reuniones de empresa. En 2016 fue jurado del Premio Emakunde a la Igualdad y en 2017 recibió este premio por su trayectoria y conciencia feminista y "por su impecable, valiente y larga trayectoria como payasa profesional y cuentacuentos con conciencia feminista".